

OLERKIA (Augustin Zubikarai)

*Ona eleberri erraz bat,
neke barik jaso,
bururatu daustan erriari
biurtu nai dautsadana.*

*Gure oroimen
eta akatsekin,
gure gatz
eta ozpiarekin.
Gure gordinkeri
ta txikikeriekin.*

*Bizi nai dogu
ta bizitzen kontu lar.
Len, orain eta gero "
itxasora jo bear.
Nai eta jakin
zoroaldi baten
iruntsiko gaitula
ondasun guztiekin.*

*Baia gurea
itxasoa da.
Origaitik guretzat
eguneko ogi itxas bizia.
Orrek dakarkigu
nortasun berezia:
Mariel izatea,
arrantza eskubidea,
gure egi ta bizi
eta gure bidea.*

Irakurlea: Agurtzane Zubikarai, Irakaslea - Ondarru